

ALKATETZAREN DEKRETUA

Alkatetzaren ekainaren 17ko Dekretuz, Garapen Ekonomikorako, Enplegurako eta Berrikuntzarako batzorde aholkularia eratu zenez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen legearen 21.1 c) eta 21.3 artikuluek ematen dizkidaten ahalmenez baliatuta,

Erabaki dut, Garapen Ekonomikorako, Enplegurako eta Berrikuntza batzorde aholkulari-burutza Maria José Telleria Etxeberria andreari ORDEZKATZEA

Eibarren emana, bi mila eta hamaikako urriaren hogeita zazpian.

ALKATEAK,
Miguel de los Toyos Nazabal.

DECRETO DE ALCALDIA

Constituida la Comisión Asesora de Desarrollo Económico, Empleo e Innovación por Decreto de Alcaldía de 17 de junio, y en virtud de las atribuciones que me son deparadas por el artículo 21.1 c) y 21.3 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local,

RESUELVO DELEGAR la Presidencia de la Comisión Asesora de Desarrollo Económico, Empleo e Innovación en Dña. Maria José Telleria Etxeberria.

Eibar a veintisiete de octubre de dos mil once.

EL ALCALDE,
Miguel de los Toyos Nazabal.

Gipuzkoako Taxisten Elkarteak egindako proposamena 2012. urterako taxien tarifak onartzeko.

Propuesta de la Asociación Guipuzcoana del Taxi de aprobación de tarifas auto-taxi, para el año 2012.

Datorren ekitaldirako tarifa-laukia ondoko prezio hauekin geratuko litzateke:

Cuadro de tarifas para el próximo ejercicio. Quedaría configurado con lo siguientes precios:

AURRENA: 2012rako proposatutako TARIFA 1. eta 2. eta 5. onartzea:

PRIMERO.-, Aprobar las TARIFAS 1 y 2 y 5 propuestas para el próximo año 2012:

<i>2012rako HIRI-TARIFA PROPOSAMENA / PROPUESTA TARIFA URBANA 2012</i>			
PROPOSAMENA:	ABIASARIA	KILOMETRO BAKOITZA	ITXARON ORDUA
PROPUESTA	BAJADA DE BANDERA	KILOMETRO RECORRIDO	HORA DE ESPERA
1 TARIFA			
TARIFA 1(*)	4,7282	1,1840	15,8254
2 TARIFA			
TARIFA 2(**)	5,1485	1,3104	16,6408
5 TARIFA			
TARIFA 5(***)	5,3030	1,3497	17,1400

Gutxieneko tarifak 1,5 km-ko ibilbidea edo bost minutuko itxaron aldia hartzen du bere gain.

La tarifa mínima incluye 1,5 Km. de recorrido o cinco minutos de espera.

(*) Tarifa hori lanegun edo astegunetan aplikatuko da 07:00etatik 22:00ra.

(*) Esta tarifa será aplicable los días laborables entre las 07:00 horas y las 22:00 horas.

(**) Tarifa hori egunero aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. Toki eta autonomia erkidegoan finkatutako jaiegunetan eta domeketan, baita

(**) Esta tarifa será aplicable todos los días, desde las 22:00 horas hasta las 07:00 horas. Se aplicará igualmente la Tarifa 2 desde las 07:00 horas a las

larunbatetan ere, 2. tarifa aplikatuko da 07:00etatik 22:00ra.

(***) Aplikazio ordutegia: Ostiraleko 22:00etatik larunbat edo zapatuko 07:00etara. Zapatu edo larunbateko 22:00etatik domeka edo igandeko 07:00etara. Herriko jai edo jaieguneko bezperaren 22:00etatik herriko jai edo jaiegunaren 07:00etara. Herriko jai edo jaiegunaren 22:00etatik hurrengo egunaren 07:00etara.

SEGUNDO: Espedientea Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Ordezkaritzara bidali Debegesaren bitartez, tarifa horien berrikuspenerako espedientearen tramitazioari bide eman diezaion.”

22:00 horas los domingos y los días festivos fijados en la correspondiente normativa autonómica y local, así como los sábados.

(***) Horario de aplicación: De 22:00 horas del viernes hasta las 7:00 horas del sábado. De 22:00 horas del sábado hasta las 7:00 horas del domingo. De 22:00 horas de víspera de fiesta patronal o festivo hasta las 7:00 horas de fiesta patronal o festivo. De 22:00 horas de fiesta patronal o festivo hasta las 7:00 horas del día siguiente.

SEGUNDO.- Remitir el expediente a la Delegación de Comercio del Gobierno Vasco, a través de Debegesa, a fin de que dé curso a la tramitación del expediente de revisión de tarifas de referencia.”

1. Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 1. Aldaketa, irisgarritasunaren sustapenari dagokiona eta planeamenduarekin bat ez datozen eraikinen araubideari buruzkoa.

“Eibarko Herriaren Antolamendurako Plan Orokorrari behin betiko onespena eman zion Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak 2006ko abenduaren 12an egindako bilkuran; eta haren testu bateratua 2007ko abenduaren 18ko Diputatuen Kontseiluak onartu zuen, 2008ko urtarrilaren 22ko Gipuzkoako BOLETIN OFIZIALEAN argitara eman zena.

Beraz, hiru urte eta erdi igaro dira Plana indarrean sartu zenetik eta horren erregulazioa gaurkotzea beharrezkoa egiten da denbora tarte honetan izan diren premia batzuei erantzuteko.

Asmo horrekin egin da 1. Aldaketa puntual bat helburu bi betetzeko xedez. Aurreneko helburua, HAPOean, ekainaren 30eko Hirigintzaren eta Lurzoruaren 2/2006 Legearen 177 j) artikulua arautzen duen aukera hori barneratzea da, artikulua horrek hirigintza-arrazoiengatik desjabetzeak erabiltzeko baimena ematen baitu “erabilera nagusia bizitegirakoa duten eraikinetan, sektoreko legerian aurreikusitako irisgarritasuna hirigintza-antolamenduak eskatu bezala bermatu

1.- Aprobación inicial de la 1ª Modificación del Plan General de Ordenación Urbana de Eibar relativa a la promoción de la accesibilidad y al régimen de las edificaciones disconformes con el planeamiento.

“El Plan General de Ordenación Urbana de Eibar fue aprobado definitivamente por acuerdo del consejo de diputados de la Diputación Foral de Gipuzkoa de 12 de diciembre de 2006, y su texto refundido fue aprobado por el acuerdo del Consejo de Diputados de 18 de diciembre de 2007, publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 22 de enero de 2008.

Han transcurrido, por tanto, tres años y medio desde su entrada en vigor, y se hace necesario actualizar su regulación para responder a algunas necesidades planteadas en este tiempo.

Con esa intención se ha redactado una 1ª Modificación puntual con dos propósitos. El primer contenido es la inclusión en el PGOU de la posibilidad regulada en el artículo 177.j de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, que autoriza a aplicar la expropiación por motivos urbanísticos ante la “inobservancia del deber de actualizar en las edificaciones de uso, predominantemente residencial y en los términos requeridos para la ordenación

ahal izateko beharrezko diren zerbitzuak eta instalazioak eguneratzeko eginbeharra betetzen ez denean."

Arautuko den bigarren alderdia udal erabaki bat da, hain zuzen ere HAPOak antolamenduz kanpoko egoeran utzi eta plangintzarekin bat ez datozen eraikinetan eta eraikuntzetan baimendu daitezkeen erabilerak eta ekintzak hedatzekoa, eraikin horiek, ziur aski, egoera horretan uste dena baino denbora gehiagoan egongo direlako. Horregatik aukeratu da bide hau: egoera horretan daudenak atzeratutako antolamenduz kanpoko araubidean HAPOak barnera ditzala eta antolaketa xehakatuko tresnak izan daitezela eraikin horien araubidea aldatu eta berariazko antolamenduz kanpoko araubide zurrunago batera eramango dituztenak.

Aldaketa hau 2/2006 Legearen 103. artikulua arautzen dituenetakoa da eta bere 4. eta 5. artikuluko aurreikuspenak aplikatzen zaizkio. 2/2006 Legearen 53. artikulua zehazten ditu egiturazko hirigintza-antolamendua, eta hori irakurrita atera daitezkeen ondorioa hau da: aldaketa honen edukia ez direla hor sartzen, beraz, aldaketa puntual honen tramitazioa, antolaketa xehakatuaren baliabideen tramitazioari berezkoak zaizkion arauetara egokitu behar da.

urbanística, los servicios e instalaciones precisas para hacer efectiva la accesibilidad."

El segundo aspecto regulado es la decisión de la corporación municipal de ampliar los actos y usos autorizables en edificaciones y construcciones disconformes con el planeamiento, que el PGOU ha declarado en situación de fuera de ordenación, y que probablemente van a permanecer en dicha situación más tiempo del esperado. Para ello se ha optado por que el PGOU incluya a todas las edificaciones en esta situación, en el régimen de fuera de ordenación diferido, y que sean los instrumentos de ordenación pormenorizada correspondientes los que puedan variar su régimen al más estricto de fuera de ordenación expresa.

La presente modificación es de las reguladas por el artículo 103 de la ley 2/2006, y se le aplican las previsiones de sus apartados 4 y 5. El artículo 53 de la ley 2/2006 define las materias consideradas como ordenación urbanística estructural, de cuya lectura se puede deducir que los contenidos de la presente modificación no forman parte de la misma, por lo que la tramitación de la presente modificación puntual deberá ajustarse a las reglas propias de la

2/2006 Legearen 85.3 artikulua, xedapen berrien ondorioz indarreko hirigintza-araubidean aldaketak izan dituzten eremuetarako lizentziak emateko aukera eteteari dagokionez aurreikusten duenari dagokionean, Aldaketa honen edukia zein den kontuan hartuta, etete horrek, erabaki edo akordio honen xede den Aldaketak zuzenean eragiten dien antolamenduz kanpoko araubidean dauden eraikinei eta instalazioei bakarrik eragingo die eta etete horrek gehienez ere urte biko epea izango du edo Aldaketa behin betikoz onartu arte.

Aldaketa puntual bat denez, egiturazko hirigintza-antolamenduari dagozkion gaiak ez dituen, HAPO Aldatzeko proposamenak ez ditu hirigintzaren eta lurzorua 2/2006 Legearen 62. artikulua aurreikusitako dokumentu guztiak eta Justifikaziozko Memoria batera mugatzen da, eta aldaketa bat denez, horren eraginpean dauden Hirigintza Arauak jasotzen ditu, indarrean dagoen testua eta aldaketarako proposamena jasota, baita informazio-plano aldatuak ere.

Espedienteari lege-aholkulariak egin duen aldeko txostena lotuta, Hirigintza, Obra eta Ingurugiro lan batzordeak, udalbatzari, erabaki hau hartzeko proposamena egin dio:

tramitación de los instrumentos de ordenación pormenorizada.

En cuanto a lo previsto en el artículo 85.3 de la ley 2/2006 respecto a la suspensión de licencias en los ámbitos en las que las nuevas determinaciones previstas supongan modificación del régimen urbanístico vigente, dado el contenido de la presente Modificación dicha suspensión sólo se referirá a las edificaciones e instalaciones incluidas en el régimen de fuera de ordenación que estén directamente afectadas por la Modificación objeto de este acuerdo, y se extenderá por un plazo máximo de dos años o hasta la aprobación definitiva de la misma.

Al tratarse de una Modificación puntual que no contiene materias relativas a la ordenación urbanística estructural la propuesta de Modificación del PGOU no contiene todos los documentos previstos en el artículo 62 de la Ley 2/2006 de suelo y urbanismo, limitándose a una Memoria justificativa, y al tratarse de una modificación, las Normas Urbanísticas afectadas, recogiendo el texto vigente y la propuesta de modificación, así como los planos de información modificados.

Incorporado al expediente el informe favorable emitido por el Asesor Jurídico, la Comisión de Trabajo de Urbanismo y Obras, propone al Pleno Municipal acuerde:

Aurrena: Hasierako onespena ematea Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 1. aldatetari, irisgarritasunaren sustapenari eta planeamenduarekin bat ez datozen eraikinen araubideari buruzkoa.

Bigarrena: Onartutako dokumentua jendaurrean uztea Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta hedapen handieneko egunkarian edo egunkarietan iragarki bana kaleratuta interesa duen edozein pertsonak bidezkoak deritzon alegazioak aurkeztu ahal ditzan; horretarako epea hogeita egunekoa izango da azkenengo argitalpenetik.

Hirugarrena: Hasierako onespenean erabakiak eten egingo dituz onspen, baimen eta lizentzia mota guztiak urte 2ko epean, edo behin betiko onarpena eman arte, antolamenduz kanpoko araubide barruan dauden eraikinetan eta instalazioetan -erabaki edo akordio honen xede den Aldaketak zuzenean eragindakoak- eta aurreikusitako xedapen berrien ondorioz indarreko hirigintza-araubidean aldatetakoak izango dituztenak. “

Primero: Aprobar inicialmente la 1ª Modificación del Plan General de Ordenación Urbana de Eibar relativa a la promoción de la accesibilidad y al régimen de las edificaciones disconformes con el planeamiento.

Segundo: Someter el documento aprobado a exposición pública mediante la publicación de sendos anuncios en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el diario o diarios de mayor tirada, por un plazo de veinte días a partir de la última publicación para que cualquier persona interesada pueda presentar las alegaciones que tenga por oportunas.

Tercero: El acuerdo de aprobación inicial determinará la suspensión, por el plazo de dos años, o hasta la aprobación definitiva, del otorgamiento de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias en las edificaciones e instalaciones incluidas en el régimen de fuera de ordenación que estén directamente afectadas por la Modificación objeto de este acuerdo y para las que las nuevas determinaciones previstas supongan modificación del régimen urbanístico vigente.”

2. Irisgarritasun baldintzak hobetzeko Ordenantzari hasierako onespena ematea.

“Irisgarritasun baldintzak hobetzeari buruzko Ordenantzaren testuaren berri eman da, Hirigintza Sailak egin duena.

Ordenantza berezi bat idatzi beharra zegoen, erabilera nagusia bizileku kolektiboa duten eraikinen irisgarritasun baldintzak hobetzeko beharrezko den lege esparrua zehazte aldera; jabari publikoko lurzorua okupatzeko aukera edo ondasunak eta eskubideak desjabetzekoa ere aintzat hartuta, eraikinen irisgarritasuna bermatzeko aukera bakarrak horiek biok direnean.

Espedienteari lege-aholkulariak egin duen aldeko txostena lotuta, Hirigintza, Obra eta Ingurugiro lan batzordeak, udalbatzari, erabaki hau hartzeko proposamena egin dio:

Aurrena: Hasierako onespena ematea Irisgarritasun baldintzak hobetzeko Ordenantzari.

Bigarrena: Toki Araubidearen Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua ezarritakoaren

2. Aprobación inicial de la Ordenanza municipal relativa a la mejora de las condiciones de accesibilidad.

“Se da cuenta del Texto de la “Ordenanza municipal relativa a la mejora de las condiciones de accesibilidad” que ha sido redactada por el Departamento de Urbanismo

Se justifica por la necesidad de redactar una Ordenanza específica que defina el marco legal necesario para la mejora de las condiciones de accesibilidad en edificios cuyo uso predominante sea el residencial colectivo contemplando incluso la posibilidad de ocupar suelo de dominio público o de expropiar bienes o derechos, cuando éstas sean las únicas opciones posibles para garantizar la accesibilidad en las edificaciones.

Incorporado al expediente el informe favorable del Asesor Jurídico, y conocido el contenido de la Ordenanza, la Comisión de Trabajo de Urbanismo y Obras, propone al Pleno Municipal acuerde:

Primero: Aprobar inicialmente la “Ordenanza municipal relativa a la mejora de las condiciones de accesibilidad”

Segundo: En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 49 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de

arabera, hartutako erabakia eta horren haritik bideratutako espedientea jendaurrean uzten dira 30 lanegun edo astegunez, erabaki honi dagokion iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIAlean argitara eman eta hurrengo lanegunetik zenbatuta, horrela, nahi duenak, bidezkoak irizten zaizkion erreklamazioak eta alegazioak aurkeztu ahal ditzan.

Hirugarrena: Esandako epe horren barruan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, ordura arte hasierako onespina baino ez zuen Ordenantza behin betiko onartutzat hartuko da, horren inguruan Udalbatzak berariazko beste akordio berri bat hartzeko premiarik gabe.”

Bases de Régimen Local, el acuerdo adoptado y el expediente al efecto instruido, se someten a información pública por un periodo de 30 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a fin de que puedan presentarse las reclamaciones y alegaciones que se estimen oportunas.

Tercero: En el caso de que en el plazo señalado no se presente ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente aprobada la Ordenanza hasta entonces inicialmente aprobada, sin que por el Ayuntamiento Pleno deba adoptarse al efecto un nuevo acuerdo expreso.”

3.- Eibarko udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailaren arteko Hitzarmenari hasierako onespena ematea, Txonta auzoan babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko eta hiri-berroneratzerako.

“Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailak, Eibarko udalarekin izenpetu beharreko Hitzarmena aurkeztu du, Txonta auzoan babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea eta auzo hura berroneratzea helburu duena.

Udalak Hitzarmen honekin eskuratuko dituen konpromisoak hauek dira:

- 1.- Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Aldaketa jakina egitea.
- 2.- Hirigintza-kudeaketa eta urbanizazio-obrak bere gain hartzea.
- 3.- Eusko Jaurlaritzak egindako kudeaketak eta inbertsioak urbanizaziozama legez hartzea; eta horren ondorioz, Jaurlaritzaren eraikuntza-eskubideak aitortzea.
- 4.- Dagokion hirigintza-eraikigarritasuna doan lagatzea, jarduketaren ondoriozko plusbalioetan duen parte-hartzearen ondorioz edo beste edozein titulurengatik dagozkionak.
- 5.- Udalaren subrogazioa baimentzea Matsarianko industrialdean partzelak erosteko SPRILURrekin izenpetutako

3.- Aprobación inicial del Convenio entre el Ayuntamiento de Eibar y el Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transporte del Gobierno Vasco para la regeneración urbana y la promoción de viviendas de protección pública en el Área de Txonta.

“Se ha presentado por el Departamento de Vivienda Obras Públicas y Transporte del Gobierno Vasco convenio a suscribir con el Ayuntamiento de Eibar, que tiene por objeto la regeneración y promoción de viviendas de protección pública en el área de Txonta.

Los compromisos a adquirir por el Ayuntamiento en este Convenio son:

- 1.- Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana.
- 2.- Asumir la gestión urbanística y la ejecución de las obras de urbanización.
- 3.- Reconocimiento de las gestiones e inversiones del Gobierno Vasco como cargas de urbanización reconociendo en consecuencia derechos edificatorios.
- 4.- Ceder gratuitamente la edificabilidad urbanística que le correspondan como participación en la plusvalías derivadas de la actuación o por cualquier otro título.
- 5.- Autorizar la subrogación del Ayuntamiento en el Convenio suscrito con SPRILUR para adquisición de

hitzarmenean.

Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailak bere aldetik::

1.- Inbertsioak egitea Txontan dauden industriak edo tailerrak Matsariako industrialdera lekuz aldatzeko aukera izan dezaten.

Hitzarmen hori egitea udalaren interesekoa denez, udal idazkari andrearen eta Hirigintzako lege-aholkulari jaunaren txostenek diotena irakurrita,

2006ko ekainaren 30eko Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legeko 118. artikulua eta lege bereko Zazpigarren Xedapen Osagarriak eta Toki Erakundeen Ondasun Erregelamendua dakarren ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 16. artikulua diotenaren arabera eta udalbatza honek beronek dituen eskumenak;

Azaldutakoaren aurrean, Hirigintza eta Obra lan batzordeak, udal osoko bilkurari erabaki hau hartzeko proposamena egin dio:

AURRENA: Eusko Jaurlaritzako

parcelas en Matxaria.

Por parte del Departamento de Vivienda Obras Púlicas y Transporte:

1.- Realizar inversiones que posibiliten el traslado de industrias existente en Txonta al Area de Matxaria.

Considerando de interés municipal la concertación del referido Convenio, vistos los informes de la Secretaria General y del Asesor Jurídico de Urbanismo.

En aplicación de los artículos 118 y Disposición Adicional Séptima de la Ley Vasca del Suelo y Urbanismo de 30 de junio de 2006,y 16 del Real Decreto 1372/ 1986 de 13 de junio del reglamento de Bienes de las Entidades Locales , así como las atribuciones de este Pleno municipal.

A la vista de lo expuesto, la Comisión de Trabajo de Urbanismo y Obras, propone al Pleno Municipal acuerde:

PRIMERO: Aprobar el texto adjunto

Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailak, Eibarko udalarekin izenpetu beharreko Hitzarmenaren testu hau onartzea, helburutzat, Txonta auzoan babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea eta auzo hura berroneratzea duena.

BIGARRENA: Hitzarmen horren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea, argitara ematen denetik hasita, hogeit eguneko epean, jendaurreko informazio aldiari hasiera emateko eta alegazioak aurkezteko. Tramite edo betebehar hori alegaziorik gabe amaituko balitz, hitzarmena behin betiko onartua geratuko da eta izenpetu egingo da; alegaziorik balego, udal honetako udal osoko bilkurak emango ditu horien inguruko ebazpenak.

HIRUGARRENA: Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailari eta SPRILUR SA-ri jakinaraztea.

LAUGARRENA: Alkate jaunari, Miguel de los Toyos Nazabal jaunari, hitzarmena izenpetzeko baimena ematea.”

propuesto de Convenio a suscribir con el Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transporte, que tiene por objeto la regeneración y promoción de viviendas de protección pública en el área de Txonta.

SEGUNDO: Publicar el texto íntegro del referido Convenio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para apertura de un periodo de información pública y presentación de alegaciones en un plazo de veinte días, a partir de dicha publicación; determinando que caso de concluir el referido trámite sin alegaciones devendrá definitivamente aprobado el convenio, y se procederá a su firma, y que caso contrario, este Pleno resolverá sobre las alegaciones presentadas.

TERCERO: notificar el acuerdo a la Dirección de Suelo del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transporte del Gobierno Vasco y a SPRILUR, S.A.

CUARTO: Autorizar al señor Alcalde, Don Miguel de los Toyos Nazabal para la firma del Convenio.”

DEKLARAZIO INSTITUZIONALAREN EREDUA AZAROAK 25

“Azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, aurten, berriro ere, gazteriarengan jarri nahiko genuke arreta. Izan ere, indarkeriaz hitz egiteko beharraz gainera, errespetua, askatasuna, autonomia eta berdintasuna oinarri dituzten harreman afektibo eta sexualak eraikitze beharra ikusten dugu.

Erakundeek, hedabideek eta gizarteak oro har bukarazi beharreko arazo sozialtzat jotzen da emakumeenganako indarkeria. Hori azken urteotan erdietsitako lorpen garrantzitsua izan da. Halarik ere, askotan, indarkeria mota hori egoteko arrazoia ez dago ezagutzerik, ezta haren sustraiak zeintzuk diren ere, edo, besterik barik, ez da horren gainean informatzen. Askotan, “gaitz” hitza erabiltzen da hura definitzeko, jasan beharreko ezbehar bat izango balitz bezala, inolako arrazoirik gabe eta horren erantzule izango ez bagina bezala. Gizarteak neska gazteen kontrako indarkeria kasu ugari ikusten ditu txundituta, eta ez daki zer ari den gaizki egiten, gailentasun matxistako ereduak izateko oraindik nagusi gazteen arteko

MODELO DE DECLARACIÓN INSTITUCIONAL 25 DE NOVIEMBRE

“Con motivo del 25 de Noviembre, Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres, este año nos gustaría volver a poner el foco de atención sobre la juventud, para hablar no sólo de violencia sino también de la necesidad de construir relaciones afectivas y sexuales basadas en el respeto, la libertad, la autonomía y la igualdad.

La violencia hacia las mujeres es considerada por instituciones, medios de comunicación y el conjunto de la sociedad como un problema social que hay que atajar. Este ha sido un logro importante de los últimos años. Sin embargo, a menudo se desconoce, o no se informa, del por qué sigue existiendo esta violencia, cuáles son sus raíces. Con frecuencia se emplea el término “lacra” para definirla, como si se tratase de una desgracia que tenemos que soportar sin motivo alguno y de la que no somos responsables. La sociedad asiste con estupor a los casos de violencia sexista que se dan contra las chicas jóvenes y no se explica qué se está haciendo mal para que las relaciones

harremanetan.

Testuinguru horretan, ezinbestekoa da begirada zabaltzea, emakumeenganako indarkeriari buruzko ikuspuntu globala izatea, tratu txar fisikoak eta hilketa matxistak baino haragoko elementuak barne hartzeko eta gizartearen esparru guztietan mantentzen diren desberdintasunen adierazpen basatitzat jotzeko. Horrenbestez, ezinbestekoa da ulertzea ezin daitekeela emakumeenganako indarkeriaren kontra borroka egin, gizonezkoen eta emakumezkoen ereduak sakon eraldatu barik, ez eta gizon eta emakumezkoen harreman afektibo eta sexualak eraikitzeke modua ere.

Prozesu horri ekiteko, beharrezkoa da erreferente positiboak edukitzea. Xedea ez da gazteriak egungo eredu kaltegarriak antzematea bakarrik, baita maitasuna eta sexualitatea modu askeagoan eta berdintsuagoan bizitzen ikastea ere. Horretarako, aurtengo kanpainaren lema Beldur Barik Jarrera da. Gizarte berdina goa eraikitzen laguntzen duten eguneroko jarrera txiki horiek landu nahi ditugu gazteekin. Neskekin, euren autonomia eta jabetasuna sendotzen dituzten jarrerak landu nahi ditugu, izan ere, horiek mugak gainditzen eta estereotipo sexistak apurtzen lagunduko

entre la juventud sigan marcadas por patrones de dominación machista.

En ese contexto, resulta imprescindible ampliar la mirada, tener una comprensión global de la violencia hacia las mujeres, que incluya más elementos que el maltrato físico y los asesinatos machistas, que entienda a los mismos como expresiones brutales de las desigualdades que se mantienen en todos los ámbitos de la sociedad. Es por tanto indispensable entender que no se puede luchar contra la violencia hacia las mujeres sin abogar por una transformación profunda de los modelos de masculinidad y feminidad, así como de la forma en la que se construyen las relaciones afectivas y sexuales entre las mujeres y los hombres.

Para emprender ese proceso, es necesario contar con referentes positivos. No se trata sólo de que la juventud identifique lo pernicioso de los modelos actuales, sino que sepa vivir el amor y la sexualidad de formas más libres e igualitarias. Por ello, el lema de la campaña de este año es Actitud Beldur Barik. Queremos trabajar con la juventud esas pequeñas actitudes cotidianas que contribuyen a construir una sociedad más igualitaria. En las chicas, actitudes que fortalecen su autonomía y empoderamiento, que les ayudan a superar barreras y a romper con

diete. Mutilekin, berriz, matxismoa deslegitimizatzekeo jarrerak landu nahi ditugu, baita maskulinitasun hegemonikoaren eredutik aldetzekoak ere.

Horren guztiaren jakitun, Udal honek

ONARTU EGITEN DU KONPROMISOA, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, oso eta koordinatua garatzeko, arreta berezia jarriz neska gazteengan, eta, betiere, euren partaidetza aktiboarekin.

Horretarako, ekimenak abiaraziko ditu neskei beharrezkoak zaizkien baliabideak emateko, euren jabekuntza sendotu dezaten eta euren identitatea eraikitzekeo eta berdintasun harremanak ezartzeko beste eredu batzuk aurki ditzaten. Onartu egiten du gazteek parte hartzea jarrera sexistak zalantzan jartzeko eta matxismorik gabeko jarrera hartzeko. Horretarako, ikusten dituzten erasoek kontra paper aktiboagoa izatera animatu behar ditugu neskak eta mutilak, bai eta

estereotipos sexistas. En los chicos, actitudes de deslegitimación del machismo, así como aquellas que se alejan del modelo de masculinidad hegemónica.

Consciente de todo ello, este Ayuntamiento

ASUME EL COMPROMISO de desarrollar, en el ámbito de sus competencias y en aplicación de la legislación vigente, una política municipal activa, integral y coordinada a favor de la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres poniendo especial atención en la violencia contra las jóvenes y adolescentes, contando con la participación activa de éstas.

Para ello, pondrá en marcha iniciativas que doten a las chicas de los recursos necesarios para fortalecer su empoderamiento y encontrar otros modelos para construir su identidad y establecer relaciones en igualdad. Asume el compromiso de implicar a la juventud en el cuestionamiento de comportamientos sexistas y la adopción de actitudes libres de machismo, animando tanto a las chicas como a los chicos a que tomen un papel activo

desberdintasunak betikotzen laguntzen duten aurreiritziak eta estereotipoak antzematera ere.

Era berean, GONBIT EGITEN DIEGU herritar guztiei, eta bereziki neska-mutilei, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera.”

contra las agresiones cotidianas a las que asistan, y a que identifiquen los prejuicios y estereotipos propios que contribuyen a perpetuar las desigualdades.

INVITA a la ciudadanía y, de manera muy especial, a las chicas y chicos del municipio a participar activamente en los diferentes actos que se lleven a cabo con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres.”

MOZIOA, Udalak Gipuzkoako Hondakinen Kontsoltzioarekin edo Partzuergoarekin dituen konpromiso ekonomikoak eta finantza-konpromisoei buruz eta Inbertsio Planaren gerarazteaz.

JUSTIFIKAZIOA

2006an, konponbideak bilatzen urteak eman ondoren, Gipuzkako hondakin mankomunitate guztiek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki zuten Hondakinen Partzuergo bat sortzea, horrelako erakunde guztiak elkartzeko, 2002ko Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketa Integralerako Planean hiri hondakinak kudeatzearen gaineko diagnosian bat zetoenez gero, batez ere etorkizunean horiek kudeatzeko eredia definitzeari dagokionez, tratamendurako jarraibideak ezartzen dituelako hondakinak murriztu, berrerabili eta birziklatzeren hastapen hierarkikoak. Eta alderdi horretan egin dituzte ahaleginik handienak, hain zuzen ere, bai erakundeek bai herritarrek, Gipuzkoan Espainia osoko birziklatze kotarik handienak eskuratzera. Baina etxeko hondakin motak biltzearen gaineko eztabaida sasikoa da haren bitartez erakutsi nahi izanez gero ez direla

MOCIÓN en relación a los compromisos económico-financieros del Ayuntamiento respecto del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa y la paralización de su plan de inversiones.

JUSTIFICACION

En 2006, las mancomunidades de residuos de todo el Territorio de Gipuzkoa junto a la Diputación Foral de Gipuzkoa, resolvieron, tras años de búsqueda de soluciones, crear un Consorcio de Residuos que aglutinara todos estos entes al compartir el diagnóstico relativo a la gestión de Residuos Urbanos que ya se recogió en el Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Gipuzkoa (PIGRUG) de 2002, y muy especialmente en lo que se refiere a la definición del modelo de gestión de los mismos a futuro, que establece las pautas de tratamiento con arreglo a los principios jerárquicos de la reducción, la reutilización y el reciclaje de los residuos. Y es en este aspecto en el que mayores esfuerzos se han realizado tanto por parte de las instituciones como por la de la ciudadanía, hasta alcanzar en

beharrezkoak aurreko ahalegin horiek guztiak egindakoan geratzen diren gainerako hondakinak suntsitzeko plantak. Edo, bestela esanda, "atez ate" deritzon sistema herritarrentzat garestiagoa, osasunaren galgarriagoa eta deserosoagoa da. Eta, gainera, ez du ezer konpontzen erraustu beharraren aldetik.

Ondorioz, akordioa izenpetutako erakundeek onartzen zuten aipatu politikak abian jartzeko beharrezko azpiegiturak eraikitzea; hain zuzen ere, etxeetan eta sorgune handietan bereiz jasotako zati organikoa konpost bihurtzea eta "hondarra" deritzon zatia energia bihurtzea erraustearen bidez —hau da, saihestu, birziklatu edo konpostatu ezin izan diren hondakinak—. Bien bitartean, gainera, aldi baterako konponbide bat definituko zen, eskualdez gaineko zabortegei kontrolatuetan tratatu ahal izateko, errauste azpiegiturak amaituta egon arte. Nabarmendu beharrekoa da azken 4 urteotan Gipuzkoan indarrean diren zabortegeiak handitzeko lanak egin dituzte, hain zuzen ere, Urtetan, Sasietan eta Lapatxen. San Marko zabortegeia behin betiko ixtea ere erabaki zuten,

Gipuzkoa, las más altas cotas de reciclaje en el conjunto de España. Pero el debate sobre cómo han de recogerse las diferentes fracciones de residuos domiciliarios es falso si con ello se pretende demostrar que no son necesarias plantas que eliminen el resto de los residuos que queda tras haber realizado todos esos esfuerzos previos. O dicho de otro modo, el sistema de recogida denominado "puerta a puerta", no sólo es más caro, más insalubre y más incómodo para los ciudadanos. Es, además irrelevante en lo referente a la necesidad de incineración.

Por eso, las entidades firmantes de aquel acuerdo asumían la construcción de las infraestructuras precisas para la aplicación de las mencionadas políticas, y más concretamente, el compostaje de la fracción orgánica recogida de forma selectiva tanto en domicilios como en centros de gran producción, así como la valorización energética de la llamada fracción "resto", es decir, de aquellos residuos que no hayan podido ser evitados, reciclados o compostados, a través de la incineración de los mismos, y definiendo entre tanto una solución temporal transitoria que permitiese su tratamiento en vertederos controlados, de carácter supracomarcal, hasta que tales infraestructuras de incineración estén concluidas. Cabe destacar que en los últimos 4 años se han llevado a cabo

Donostia-Beterriko hondakinak, solidaritatez, gainerakoekin batera botatzeko; nahiz eta egunero-egunero geure lurraldean sortzen den zabor kantitateak isurketa ahalmena gainditzen duen, ondorioz urtean 25.000 tona Bizkaiko Igorreko zabortegira eraman beharra izaten dela. Eta beharrezkoa da ondo gogoan izatea ezingo direla egungo zabortegiak gehiago handitu. Beraz, zaborrekiko jokaera premia handiko arazoa da.

Halaber, partzuergora bildutako erakundeek Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoa eta hura kudeatzeko baltzua aurreikusten zituzten Gipuzkoako toki administrazioek hiri hondakinak kudeatzeko behar gero eta handiagoa administrazioaren aldetik modu bateratu eta eraginkorren antolatzeke formularik egokientzat, abiaburu hartuta hasi bidez hiri hondakinak kudeatzeko ardura eta beharkizuna legez udalei dagokiela onartzea, lurralde mailan partzuergoei

diferentes obras de recricido en los vertederos activos en Gipuzkoa, concretamente en Urteta, Sasieta y Lapatx. También se alcanzó el acuerdo de cerrar definitivamente el vertedero de San Marcos de modo que los residuos de Donostialdea se vierten solidariamente en el resto, si bien en la actualidad el volumen de residuos que diariamente se genera en nuestro Territorio excede su capacidad de vertido, de modo que 25.000 toneladas han de ser llevadas anualmente al vertedero vizcaino de Igorre. Y es necesario ser muy conscientes de que ya no serán posibles nuevas ampliaciones de los vertederos actuales, por lo que el problema del destino de la basura se torna acuciante.

De igual manera, los entes consorciados contemplaban la constitución del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa y de su sociedad gestora (GHK) como fórmula adecuada de organización administrativa que permita una gestión unificada y eficiente a las necesidades de gestión de R.U. en alta que tienen planteadas las Administraciones Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, partiendo del reconocimiento de que la responsabilidad y obligación legal de

eskualdatu arren.

Bilbadura berri horren oinarriak ziren lurralde arteko elkartasuna eta aldeek elkar onartzea eta fidagarritzat jotzea, osagarri zela haien arteko finantza eta ekonomi lankidetzak. Horren harroin, Gipuzkoako Foru Aldundiak 378 milioi euroko inbertsio plan batetik % 33 ordaindu behar zuen, itzuli beharrik gabe. Gainerako udalerrien partzuergoek ordaindu behar zituzten, trataturiko tona bakoitzeko aldi-aldian tarifa bat ordainduta. Tarifaren barruan 20 urterako finantzatze kostuak sartuta daude.

Egia esan, gaur egun, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak dagoeneko 46 milioi euro ordaindu ditu; eta, lanen erritmoa kontuan, hilean-hilean milioi bete euroko lan egiten egiaztagiriak ordaintzen ari dira. Diru horretatik guztitik, Gipuzkoako Foru Aldundiak dagoeneko 26,5 milioi euro aurreratu ditu, baita 10 milioi erabili ere Banco Europeo de Inversiones erakundearekin eta banketxe pribatuekin izenpeturiko 263 milioi euroko kreditutik. Gainera, gipuzkoarrek beste 9,5 milioi ordaindu dituzte, azken urteotan zabor tasetan izandako igoeren ondorioz.

gestionar los R.U. reside inicialmente en los ayuntamientos, y a nivel territorial se ha trasladado a las mancomunidades.

Este nuevo entramado se sustentaba en el principio de solidaridad territorial y el mutuo reconocimiento y confianza entre las partes, y se completaba con la cooperación económica y financiera entre ellas, sobre la base de que la Diputación Foral de Gipuzkoa aportaría, a fondo perdido, el 33% de los fondos necesarios para hacer frente a una plan de inversiones que ascendía a 378 millones de €. Del resto se harían cargo las mancomunidades de municipios, a través del pago regular de una tarifa por tonelada de tratamiento, que incorporaba los costes de financiación a 20 años.

Lo cierto es que, a día de hoy, GHK ha invertido ya 46 millones de € y el ritmo de las obras hace que, cada mes, se estén abonando facturas correspondientes a certificados de ejecución de obra por valor de 1 millón de €. De todo ese dinero, la DFG ya ha adelantado 26,5 millones, se han dispuesto 10 de los 263 millones de € de crédito suscrito tanto con el Banco Europeo de Inversiones como con la banca privada, y los 9,5 millones restantes los ha pagado ya el ciudadano guipuzcoano a través de las subidas de las tasas de basura de los últimos años.

Kontuan izan behar da, gainera, kreditu erakunde horiek sinatutako finantzatzea **proiektu finantzaketa** dela; beraz, ezin da inondik inora erabili hura ematean finantzatze helburu zirenez bestelako helburu batzuetarako. Bestela esanda, inbertsio plana aldatzea ondorioztatzen duen kudeatze planetan edozer aldatzeak kreditu erakundeen konpromisoa amaitutakotzat jotzea dakar ondorio. Beraz, klausulak betearaztearen ondorioz, maileguan utzitako dirua, finantzatze kostuak eta interes moten estaldurak eskatzeko bidea izango lukete.

Azkenik, nabarmendu beharra dago orain arte eginiko lanen garrantzia: Donostiako Zubieta aldean kokaturiko Hondakinak Gestionatzeko Gipuzkoako Zentroko sarbideak eta betelanak; Lapatzeko konpost plantak; Urteta, Sasieta eta Lapatzeko zabortegiak handitzea; transferentzi estazioak... Baita aurretratatamendua eta erraustegia eraikitze kontratuak bertan behera uztearen kostu handia, Hondakinak Gestionatzeko Gipuzkoako Zentroko gainerako betelanak edo desjabetze espedienteak gerarazi eta lurzoruak jabeei

Ha de tenerse en cuenta, además, que la financiación suscrita con estas entidades de crédito es una financiación de proyecto, por lo que en modo alguno puede emplearse para fines distintos a los que fueron objeto de financiación a la concesión del mismo. Dicho de otro modo, cualquier cambio en los planes de gestión que acarreen una modificación del plan de inversiones, da por finalizado el compromiso de las entidades crediticias, lo que les permitiría ejecutar sus cláusulas y reclamar el dinero prestado y los costes de financiación del mismo y las coberturas de tipos de interés.

Por último, ha de ponerse de relieve la dimensión de las obras ejecutadas hasta la fecha: viales de acceso y movimientos de tierras en el Centro de Gestión de Residuos de Gipuzkoa ubicado en el enclave donostiarra de Zubieta; plantas de compostaje en Lapatz; ampliaciones de los vertederos de Urteta, Sasieta y Lapatz; estaciones de transferencia... Así como el alto coste de la resolución de contratos como el de la construcción del pretratamiento y la incineradora, el restante del movimiento de tierras en el

itzultzearen gastuak ere.

Kontzeptu horiek guztiek eta Partzuegoak 2014a arte bereganaturiko ordaintzeko obligazioek guztira 159.557.000 euroko aurrekontua egingo lukete lanak geraraztearen aldetik, partzuergoko erakundeek inoren ordezkari ordaindu beharko luketela, bakoitzak asanbladan duen ordezkariaren arabera.

MOZIOA

Lehena.- Eibarko Udalak erabateko atxikimendua erakusten die Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketa Integralerako Planean jasotako planei eta aurrerapen dokumentuei; batez ere, tratamendu plantetarako inbertsio planei, egutegiari eta finantza planari, zaborrak tratatzeko planak kokatzearen gaineko lurraldearen arloko planaren arabera.

Bigarrena.- Eibarko Udalak erabat gaitzesten du hondakinak kudeatzeko xedaturiko planak edozergatik gerarazteari. Hartarako, oinarri hartzen ditu onarturiko konpromisoak eta, ustez, zor handiegia lepoan hartu eta ziurgabetasunean egon beharra izango dela, gure udalerriko hiri hondakinen gestioaren moduko auzi garrantzizko bat zintzilik utzita.

CGRG o la paralización de expedientes expropiatorios y restitución de terrenos.

Todos estos conceptos, unidos a las obligaciones de pago contraídas por GHK de aquí al 2014, suponen un coste total aproximado por las paralización de las obras, de 159.557.000€, que deberán abonarse subsidiariamente por los entes consorciados en función de su peso en la Asamblea del mismo.

MOCION:

Primero.- El Ayuntamiento de Eibar muestra su total apoyo al desarrollo de los planes contemplados en el PIGRUG y en el documento de progreso, y más concretamente al plan de inversiones de plantas de tratamiento de acuerdo con el Plan Territorial Sectorial de ubicación de plantas de tratamiento de residuos, a su calendario y plan de financiación.

Segundo.- El Ayuntamiento de Eibar rechaza rotundamente cualquier paralización de los planes de gestión de residuos previstos, sobre la base de los compromisos adoptados y en previsión de tener que contraer una deuda descomunal y adentrarnos en una incertidumbre que deje en el aire algo tan básico como la gestión de los residuos urbanos de nuestro municipio.

Hirugarrena.- Eibarko Udala Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketa Integralerako Planean eta haren aurrerapen dokumentuan jasotako tratamendu planak eraikitzeko lanak amaitu bezain laster udal zabortegi guztiak ixtearen alde dago. Halaber, erabakita dago berreskura daitezkeen hondakin zati guztiak saihestu, birziklatu eta berrerabiltzeko politikei lehentasuna ematera, halakoak zertan errausterik ez izateko. Era berean, Udalbatzak apustu egiten du zaborra kaleetan kokaturiko edukiontzi itxien bidez jasotzearen alde, etxeko hiri hondakinak jasotzeko metodorik egokiena delakoan.

Laugarrena: Eibarko udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari hauxe galdatu edo exijitzen dio: modu demokratikoan jardun dezala Gipuzkoako Batzar Nagusiek Lurraldean hondakinak kudeatzeko orduan gehien hartu dituzten erabakiak errespetatuta eta erabaki horiei men eginda.”

Eibarren, 2011ko irailaren 27an.

Tercero.- El Ayuntamiento Eibar apuesta por el cierre de todos los vertederos guipuzcoanos en el momento en que concluyan las obras de construcción de las plantas de tratamiento contempladas en el PIGRUG y su documento de progreso. Asimismo muestra su determinación de seguir dando prioridad a las políticas de prevención, reciclaje y reutilización de todas las fracciones de residuos que puedan ser recuperadas y evitar así su incineración. Del mismo modo, el Ayuntamiento Pleno apuesta por la recogida a través de contenedores cerrados en la vía pública como mejor método de recogida de los residuos urbanos domiciliarios.

Cuarto: El Ayuntamiento de Eibar exige a la Diputación Foral de Gipuzkoa que actúe de manera democrática respetando y acatando las decisiones adoptadas de forma mayoritaria en las Juntas Generales de Gipuzkoa, también en relación a la gestión de los residuos en el Territorio.”

En Eibar, a 27 de Septiembre de 2011.

Izpta.: Arcadio Benitez Dávila
PSE-EEko bozeramailea

Fdo: Arcadio Benitez
Portavoz del PSE-EE